

BIZKAIKO DUATLOI ETA TRIATLOI ZIRKUITUKO OINARRI ARAUTZAILEAK

1-Xedea

Oinarri hauek “Bizkaiko Zirkuitoa” (aurrerantzean “Zirkuitoa”) izenez ezagutzen diren Duatloi eta Triatloi diziplinetako ekitaldiak arutzen dituzte.

2-Antolakuntza

Zirkuitoen antolakuntza Bizkaiko Triatloi Federazioari dagokio. Zirkuitoaosatzen duten Duatloi eta Triatloi probak edozein pertsona edo entitate, publiko edo pribatuek, antolatu ahalko dute.

Duatloi edo Triatloi proba bat antolatzeak, oinarri arautzaile hauek onartzea dakar.

3- Zirkuitoakosatzen dituzten probak

Zirkuituetako 0 parte izango diren Duatloi eta Triatloi proba eta ekitaldiak, Antolakuntza Batzordeak urtero onartzen direnak izango dira. Zirkuito hauek osatzen dituzten lehiaketak Bizkaiko Lurralde historikoan ospatu beharko dira.

Antolakuntza Batzordeak zehaztu beharko ditu urte edo denboraldi bakoitzean Duatloi eta Triatloi zirkuituak osatuko dituzten probak. Halaber antolakuntza batzordeak erabakiko ditu edozein antolatzailek bere proba Zirkuituen barnean sartzeko bete beharreko irizpideak.

Oro har, Bizkaian antolatzen diren probak izango dira zirkuituak osatuko dituztenak, Sprint distantziakoak edo estandarrak duatloien kasuan, eta Sprint edo Olinpikoak triatloien kasuan. Zirkuitu hauetatik kanpo geratuko dira distantzia luzeko probak.

4-Epaile-Arbitroak eta Zirkuituetako probetan ezarri ahal diren arau tekniko edo lehiaketa arauak.

Zirkuituen barne dauden proben gainbegiratze eta kontrol teknika Euskadiko Triatloi Federazioko epaile eta arbitroei dagokie.

Zirkuituko probetan Euskadiko triatloi Federazioak ezarrita duen Lehiaketetako arautegia erabiliko da.

5-Partehartzea

Parte hartzeko eta titulua lortu ahal izateko beharrezkoa izango da Bizkaiko Triatloi Federazioak igorritako Kirol Lizentzia indarrean izatea.

Kirol klubuen sailkapenerako, beharrezkoa izango da berauentzako puntuatzen duten kirolariek, klub horien bitartez lizentzia atera izana.

Halaber Zirkuitua irabaztera hautatu nahi duten kirolariek Bizkaiko Lurralde Historikoan izan beharko dute beraien bizilekua.

6- Maila

Zirkuitoak hurrengo mailatan ospatuko dira:

- Kadeteak (Gizonezkoak eta Emakumezkoak)
- Junior (Gizonezkoak eta Emakumezkoak)
- 23 urte azpikoak (Gizonezkoak eta Emakumezkoak)
- Beteranoak 1 (Gizonezkoak eta Emakumezkoak)
- Beteranoak 2 (Gizonezkoak eta Emakumezkoak)
- Beteranoak 3 (Gizonezkoak eta Emakumezkoak)
- Absolutua (Gizonezkoak eta Emakumezkoak)
- Taldeak (Gizonezkoak eta Emakumezkoak)

7-Puntuazioa

Maila bakoitzerako honako puntuazio sistema hau ezartzen da:

Diziplina eta maila bakoitzeko sailkapena egiteko:

Zirkuituko proba bakoitzean, kategoria bakoitzerako eta absolutuan, honako puntuaketa hau emango da behin lehiaketa bukatu eta Bizkaiko Lurraldean bizi diren emakumezko eta gizonezko kirolarien sailkapena kontuan hartuta.

1. 300 puntu
2. 290 puntu
3. 263 puntu
4. 230 puntu
5. 205 puntu
6. 190 puntu
7. 180 puntu
8. 170 puntu
9. 160 puntu
10. 150 puntu
11. 149 puntu
12. 148 puntu
13. 147 puntu

Eta horrela gainerakoak.

Bizkaiko Txapelketa izan diren proben kasuan, aurreko baremoan lortutako puntuak 1,3gatik biderkatu beharko dira. Eraitza, parte-hartzaileek proba hartan lortutako puntuei gehituko zaie.

Zirkuituko sailkapena egiteko puntuak ematerakoan soilik 6. Oinarria betetzen duten kirolari eta taldeen puntuak gehituko dira.

Zirkuituko probetan, sailkapena lehen hiru sailkatuen denbora gehituz egingo da.

Azken puntuaziorako, kirolariak parte hartu duen proba guztietako puntuak batuko dira. Bizkaiko zirkuituko irabazlea azken puntuazio honetan puntu gehien lortzen dituen pertsona izango da.

Berdinketa gertatuz gero, kirolariak zenbat probatan parte hartu duen hartuko da kontuan, eta proba gehien amaitu dituenak izango da irabazlea. Berdinketak jarraitzen badu, garaipen kopurua, bigarren postuak ... hartuko dira kontuan.

8-Antolatzaile Batzordea

Zirkuituek Antolatzaile batzorde bat izango dute, zein Federazioko presidenteaz eta zozketa bidez hautatutako bi taldeetako ordezkari osotarik egongo den.

Antolatzaile batzordea gutxienez urtean behin batuko da duatloi eta Triatloi proben hasiera baino lehen eta beharrezkoa den kasuetan behar beste bilera egingo dituzte.

Antolatzaile Batzordearen eskumenak honako hauek izango dira:

a)Duatloi eta Triatloi Zirkuituak osatzen dituzten proben egutegia onartzea.

b)Indarrean dauden oinarri erregulatzaileak aldatzea

c)Oinarri erregulatzaileak interpretatzea eta planteatzen diren ustezko egiteetatik sortu ahal diren eztabaidak konpontzea, bai arautegi zehatz bat ez dagoen alderdietan edota zalantzazko kasuetan.

d)Zirkuituekin zerikusia duten alderdi guztiak konpondu eta ezagutzea.

Antolatzaile batzordearen funtzionamendua kide anitzeko atal batena izango da, erabaki guztiak kideen gehiengoaz onartu beharko direlarik.